

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 Inga R. Fernández J. Arana 27 - IRIU

3. Zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA

1986ko Maiatza

RENNES-KO TRIBUNALERA HONDARRIBIKO 70 ARRANTZALE



bat Frantiako guardakostasi begira, noiz agertuko den ikaraz.

"Ancelle" patruilera

Horrela gertatu zen 1977ko azaroaren 3an ere, "Ancelle" famatua Hondarribiko hogeita zazpi legazketariengana hurbildu zenean, eta guztiak preso hartu zituen. Harrez gero, ontzi gehiago ere harrapatuak izan ziren, eta, aurtengo maiatzako juizioetan, 70 dira hauzipean aurkitzen direnak. Orain arte, Baionan, Paben eta Bordelen, arrazoiak eman zaie Hondarribiko arrantzaleei, baina, Luxenburgoko tribunalek beste aldera erabaki zuen, alegia, gure aldeko epaiak ez zeudela ongi emanak, eta zigortu beharra dagoela.

Eta guztia, Frantiako lege batek onartzen duen gauza bategatik, alegia, alde honetako arrantzaleak 6 eta 12 mila artean arrantzan egin dezaketela. Lege horren balioa da hauztan dagoena. Oraindik balio duen ala ez, horixe da egun hauetan Renneseke epailariak esango duena. Hondarribiko patrioiak abokatuak, J. Tournairek, dioenez, lege hori ez da inoiz kendu, baina, zorigaitzoz, badakigu zer gertatzen den askotan: "Arrazoiak duzu, baina gartzelara joan behar duzu".

Hala ere, egia eta arrazoiak atera daitetzela gairaila, opa dizuegu herriko arrantzaleoi.

Maiatzaren 5 eta 21ean, Frantiako RENNES hiriko epaitegian juzgatuak izango dira, berriro, gure herriko hirurogeita hamar legazketari, 1977 ezkerotik zintzilik datorren hauzi bategatik. Dagoeneko, Baiona, Pabe, Bordele eta Luxenburgoko hauzietan zehar ibiliak ditugu behin baino gehiagotan gure arrantzaleak, eta, orain ere, beste hiri bat ezagutu beharrean aurkitzen dira. Oraingo honetan Rennes da epaia egingo den hiria eta hara joango dira legazketarien patrioiak. Jakin dugunez, Rennes-eko tribunala oso da zorrotza eta gogorra, eta, agian, horregatik izendatu dute juez hori behin betikotz Hondarribiko arrantzaleen arazoa zigortzeko.

Kofradiako paperak ikusten egon gara, eta, oso azaletik begiratu ditugun arren, azkenengo zortzi urteotan, berrogei juizio zenbatu edo kontatu ditugu tribunalek frantzesek Hondarribiko arrantzaleen aurka eginak.

Historia tristea, benetan, lanean ari den marifelarentzat, ogia etxera ekartzen saiatzen den arrantzalearentzat, beti izu eta beldur bere itsasoan, arrainari hain-

Zergatik eta noiztik dator hauzia?

Hondarribiko arrantzaleak, herria, kaia eta itsasoa sasimugaren gain gainean dituztelarik, oso pertsegituak eta erasotuak izan dira azken urte hauetan, itsasoan jarri berriak diren legeen bidez. Orain arte, gure gurasoak, gurasoen gurasoak eta aitonen aitona horteix ibiltzen ziren arrantzan, beti, Errekan, Gaztelun, Eskoten, eta hain etxeko dituzten kaletan. Baina zibilizazioa etorri zen, eta, berarekin, legeak, mugaketak, eragozpenak... Arraina dagoen lekutara ezin zen joan Hego Euskal Herriko arrantzalerik, betidanik ibilitako bideak ezin ziren gehiago egin; arraunkada bat harutzago ezin zen arairik atzeman.



Apirileko alean esaten nuen, baserri-tako maizterrak, edo errenteroak, bere baserria erosi nahi baldin badu, aurten dela erratzasunak emango den azkenengo urtea. Epe hau datorren urteko otsailaren 21ean bukatuko da, eta garaiz ibiltzea komeni da.

1945 ezkerreko maizter sartu zireneantzat, bukatu zen erratzasunerako epea.

Orain dagoen legea, 1889 eta 1945 urte artean maizter sartu zireneantzat, da, eta hauentzako zuzendua dago, baina hauek ere argi ibili behar dute, hamar hilabete eskas besterik ez delako geratzen erosteko.


Bestalde, 1889 baino lehenagotik maizter bezala sartu zireneantzat, badirudi oraindik ez dela bukatuko epea, baina hala ere, argi ibili behar da.

Nola erosi baserria?

Baserria erosi nahi baduzu, maizter-rra zarelarik, onena nagusiarekin akordio batera iristea da. Berarekin hasi hizketan, eta ahalegin guztiak egin akordioa egiteko. Kasu honetan, ez du merxe 500.000 pezetako diferentziagatik juiziotan sartzea, paperetan gastatuko zenuko horrenbeste, bestela.

Nagusiarekin konponduko ez baziña, orduan baserri eta lurren balorazioa egin behar da.

Nola egiten da balorazioa? Nork egiten du? Erantzuna hau da: ez zuk, ezta zure nagusiak ere. Hori perito agronomo batek edo injeniero batek egin behar du (Baserriaren sindikatoak, E.H.N.E.k badiu injeniero bat hortarako). Gero, abogadu batekin egon behar duzu. Hortik "Junta Arbitral" era igarotzen da. Junta hau 6 baserriarrek osatzen dute: 3 nagusi eta 3 maizterrek. Gainera, lehendakaria eta



idazkari edo sekretarioa ere baditu juntak.

Balorazioa egindakoan, "konziliazio-ko akto"ra deituko dizeu, eta hor salneurriari buruz hortxe konpontzea da onena, bestela hauzitara jo behar da, eta hauzitan esanakin konforme ez bazara, lruñeako tribunalerara. Honek denbora asko eramaten du.

Gauzak, beraz, ongi eta azkar egiten ez badira, datorren urteko Otsailetik aurrera, nagusiak maizterra etxetik botatzeko eskubidea izango duela.

Garrantzi handiko gaiak direlako, Ekainaren 1ean, igande goizean, hamaitan, Santiagotxoko Elkartearen hitzaldia izango da.

Esnea eta haragia

Badakizue Donostian manifestazioa egin zela, baserriar asko bildurik. Hemendik esan nahi dut, gauden egoeran gogorra dela eta gogorragoa izango dela oraindik esnearen eta haragiaren inportazioa.

Eta benetan baserria zaindu nahi badugu, eta geure lana eta ogia defenditu nahi badugu, elkar hartu behar dugula.

Orduan ikusiko dute nor garen eta kontutan hartu behar gaituztela, gu ere ez garelako bigarren mailako herritarrik.

Ximon

OHARRAK

TXANDAKO OKINDEGIAK

Maiatzak 4: Arratibel.
Maiatzak 11: Martinez.
Maiatzak 18: Garmendia.
Maiatzak 25: Arratibel.
Maiatzak 29: Martinez.
Arratibel: Zubieta kalean, tel. 641975.

Garmendia: Santiago kalean, tel. 641136.

Martinez: Kale Nagusian, tel. 641212.

TXANDAKO BOTIKAK

Maiatzak 1-4: Erauskin.
Maiatzak 5-11: Mayi.
Maiatzak 12-18: Iraola.
Maiatzak 19-25: Erauskin.
Maiatzak 26-31: Mayi.
Erauskin: San Pedro kalean, tel. 641018.
Mayi: Alm. Alonso kalean, tel. 642291.
Iraola: J. Ugarte kalean, tel. 641027.

EUSKARAZKO MEZAK

Jasokunde Parrokian: Igandetan, 9tan.

Portuko elizan: Larunbatetan, 19,30tan. Igandetan, 9,30 eta 11tan.

Amuteko elizan: Igandetan, 9tan.
Mendeluko elizan: Igandetan, 8,30tan.
Gudalupen: 8,30 eta 12tan.

KARTELDEGIA "AMA GUADALUPEKO IKASTETXEAN"

"IZURDE" Elkarteak eratzen duen URPEKO ZINEMALDIA, Donostian egiten ari den XI URPEKO ZINEMALDI INTERNAZIONALA delarik.

Ekitaldien ordua, arratsaldeko 7,30tan izango da.

Maiatzak 6: "AUX CONFINES DE LA BAIE ET DE LA MER", Canadako.
"MONT LUIS", Holandako.
"PESCADO PARA TODOS LOS GUSTOS", Japongoa.

Maiatzak 7: "NOCH IST ES STARKER", Alemaniako.
"CES CHERES TORTUES", Frantziako.
"CULTIVOS DEL MAR", Japongoa.

Maiatzak 8: "IMMERION AL SERVICIO DE LA BIOLOGIA", Belgikako.
"FEVERWASSER", Alemaniako.

"HOMENAJE AL CARIBE", Cubako.

Maiatzak 9: "TRUCK", Italiako.
"CATTEDRALE SOTTO IL MARE", Italiako.
"LA GRAN BARRERA DE ARRECIFES", Australiako.

TELEFONO LAGUNGARRIAK

Aireportua	642240
Babes zibila	451946
DYA	464622
Errepideen informazioa	270588
Gizarte segurantz	
(Itxas Etxea)	641965
Gurutze Gorria	272222
Igeldoko meteorologia	210759
Itxasoko Gurutze Gorria	421440
Renfe	616708
Suhiltzaileak	622000
Udaltzaingoa eta Udala	642340

"HONDARRIBIA" aldizkaria idatzi nahi duenak, eta gure berri jakin duenak, Udaletxera jo dezake, 64.23.40 telefonora, edo bertara joan, eta Euskaraz Azipatzerdearen galdara egin. Baita Korreosen Udaletxeko posta kutxara (apartado de correos), eta bertara bidali nahi duzuenak.

GARINS

Erlojutegi-Bitxitegi

Zuloaga 16ean Tel. 643308
HONDARRIBIA

ARRATIBEL

OKINDEGIA

Egur labea

Zubieta kalean Tel. 641975
HONDARRIBIA

GOIKOETXEA

Janaridenda

S. Pedro kalean, 51 Tel. 641029
HONDARRIBIA

HERRI GIROA

Apirileko berriak

★ Guardia zibilek kuartela izan zena, Musikako akademia municipalak izateko prest dago, bertan egin den antolaketa eta obra ondoren. Laister jarriko da martxan, eta lehen ere izan zuen helburu bere izango du horrenbeste urte ondoren. Alde zaharreko kaleak musika eta doinu gozoz beteko dira berriro ere.

★ Hilaren hamarrean istripua izan zuten Gaintxurizketan Jose Manuel Alkain eta bere seme Germanek. Istripuaren ondorioz, Donostiako eritxetara eramana izan ziren, nahiko larri aurkitzen zirelako, aita batez ere. Geroko berriak ere ez dira onak izan, zeren Jose Manuelek bista galdu duelako jasan zituen zauriagatik.

★ Alfontxo Iridoi Kanpandegi eta Emi Salaberria Susperregik ere ezagutuko zituzten, dagoeneko, soldaduzkaren atsekabe atseginak. Gazteak izaki, eta, herrian izan duten umore ezaguturik, han ere halaxe ibiliko dira, eta ez dira galduko.

★ Hotel Concha botatzen hasi zirela esan genuen aurreko alean, baina geratu ere laister egin da botaketa. Esaten dute-nez, Bar Conchakoek eragotzpenaren bat jarri dute, eta, konpondu artean, geldi dago gauza.

★ Apirilaren 11an Foru Aldundiko lehendakaria, Imanol Murua, eta beste diputatu batzuek etorri ziren, herriko arazorik larrienak ezagutu, aztertu, eta konponbideak jartzera. Bistaldian, Udaltexea ikusi ondoren, Kale Nagusiko Zuloaga jauregi-ira joan ziren, jauregi honetan, Udalerria denez, bertan artxiboa eta liburutegi municipalak jartzeko asmoa bait dago. Gero, Butron Pasealekua ere ikusi zuten, itsasoaren erasoak zenbat kalte egin duen aztertuz.

★ Hilaren 12an Alemaniako turismo bulegotako ordezkari talde bat etorri zen gure herriera, hemengo eskeintzak bertatik bertara ezagutzera. Aleman asko mugitzen da turismoa egitera, eta, Hondarribiak ere badu haiengandik fruitua ateratzeko posibilitatea. Euskal Gobernuak kontsultariak lagundu zien ikustaldian, alkate jaunaren laguntzaz.

★ Apirilaren 14ko ilunabarrak berri negargarri bat ekarri zigan, herri guztia erabat triste utzirik. Iñaki Sarriegi bere etxeko zapiagarrien pisotik erori eta hil zela, inork inoiz jakingo ez duen eran erorita. Badirudi Miramar etxeko goialdera igotzeko ohitura zutela gaztetxo askok, eta han ibiltzen zirela jolasean eta txoriei janaria jartzen. Ez behar beltza izan zuen Iñakik, oina galduta eta gotik behera erortzeko. Goian bego. Bere guraso eta senideei, gure saminagurra.

★ Etxez etxe egin da hil honetan herri osoaren errolda edo enpardonamietoa, hamar urteik hamar urtera egiten dena, alegia.

★ Apirilaren 17an Harna Plazako paradoraren, Bidasako Batzorde Mistoa bildu zen, berari dagozkion gaiak aztertzeko. Alde batetik, Ferrer jauna, Gipuzkoan dagoen Komandante nabala; Zurita jauna, Eñdian dagoen Españako kontsulta; Bueno eta Oronoz jaunak, Irungo eta Hondarribiko alkateak, Tejada jauna, Foru Aldundiko Nekazaritza sailburua; eta Fernandez de Casadevante, Bidasako ehiztari eta arantzale elkartearen burua. Bestaldekik, Bidasoarako jarria den Ko-



mandante nabala, Lasallete eta Poulou jaunak, Eñdai eta Urruñeko alkateak; eta Parisiko ministeriotako ordezkariak. Gai asko izaki, eta denbora gutxi hartu omen zutelako, beste batean biltzeko geratu omen ziren.

★ Apirilaren 27an bilera bitxia egin zuten 1955ean komunio handia egin zuten neskatza, andereño, andere, ezkondu, ezkongee, eta gainerako emakumeek. Meza entzun ondoren, Irungo restaurantean batean bazkari ederra egin zuten, bakoitzak bere historia elkarri kontatzen zion bitartean. Urte askotan jarrai dezatela elkarrekin bilduz!!

★ San Markos egunerako bazen ilusioa, urteoro bezala. Baina, ze eguraldi!!! Ezin txarragoa!!! Hala ere, herriko ohitura ez zen galdu. Egun berezia da San Markos eguna Hondarribian. Maidia bakoitzak opilla ederra, arraultze gorri ornatuak, bere besotakoari emateko eguna. Goizeko bederatzietan kaleko parrokian bedeinkatu zituen Don Inaziok opil guztiak. Gero, mendira joateko asmoz ziren haur eta gurasoak, gogoarekin gelditu behar izan zuten, zaparrada, haize, txingor, tximista, trumoi, hodei beltz eta erasoak ez zuten horretarako baimenik eman eta. Datorren urtean hobe izango al da San Markos mutilzaharra!

★ Istripuei begiratzen badiegu, eta lehen aipatu ditugunez aparte, asko izan dira apirilak. Aipagarrienak, hilaren 20an Biteri aurrean Ford eskort batek ezin kurba hartu, eta arbolarekin topatu zena; hilaren 22an, Sabin Arana kalean, Visa bat,

Zuberoa kaletik ateratzeko Hondarribiara aldera bakarrik begiratu Irún aldearekin konturatu gabe, eta moto bat etorri zitazion gainera; 28an, Seat batek Maitane taberna hurreko balkoia jo zuen, txoferrak ura urri xamar erabili omen zutelako bere makarrak kentzeko, noski.

Istripu gaiztoena, apirilaren 30an gertatu zen, Amuteko Sagartzazu hondarren parean, Margarita Frances zauritua eta gero hila gertatuz, Seat 600ak lehenbizi pareta jo eta gero kamio erdian gurgilaz gora gertatu zenean. Goian bego.

★ Lapurren kapitulora gatzat orain. Ez gaituztela pakean lagako! Apirilaren ere, eguraldi txol txarrak egin arren, ez dute atsedunik hartu. Oraingo honetan, barkotan egin dituzte kalterik haundienak. Apirilaren 5ean "Maria Reina de los Cielos"eko puntean irratik ebatsi dituzte, milloi erdiko kalteetan. Beste barku batzutan gasoila ebatsi dute, ehundaka litroak. Ez dago eskubiderik!

Hainbeste lan egin eta horrenbeste izerdi bota, gero halako tipo batzuk etorri eta ebasteko! Eta noiz arte horrela?

★ Bizia gogorra denez, edo gizonak hala bihurtzen duelako, ez da giro, askotan. Zer ote zuen bere buruan, hai berrian urte t'erdiko bere haurtxoa itsasora bota zuen aitak? Eskerrak bi arantzaleri, haurra ateratu zutelako.

★ Eskerrak baita DYAKo anbulantziari, edo, hobeki esanda, DYAKo gazteei, herrian dagoen laguntzarik honenakotat dugulako, uidaltzaingoak dienez

Mariajesus

GURE PERTSONAIA

ANJEL ALKAIN ETXEBERRIA, hogeitamar urteko injeniadore gaztea dugu gaur gure orritara dakargun pertsonaia. Hondarribiar honek esperientzia interesgarri bat izan du, bere ikasketak bukatu eta irakasle gisa ere gure artean lan egin ondoren, eta esperientzia hori nahi dugu ezagutu.

Duela urtepare bat, Nikaraguara joan zen, eta hantxe egon da bi urte buruan. Orain, bere familia, lagunak eta herria bisitatzea etorri berria da, eta, berarekin elkarriketa egitea pentsatu dugu, Nikaraguako berri zuzenena han bertan bizitzen eta lanean egundakoak emango digun esperantza.

Hona hemen, beraz, guk erarazi eta berak guri egindako galdera erantzunen laburpen bat. "Laburpena" diogu, zeren Anjel Nikaraguari buruz mintzatzen hasten denean, ez du amaierarik, hain kezkatua eta lotua sentitzen bait du bere burua hanga arazekin.

—Hainbesteari, Anjel?

—Bai, bai, hanga egoerá larria ikusi-ta gero, edo berrira berehala itzultzen zara, handik ihes eginaz, edo barruan sartzen bazara, ia ia bertako bat sentitzen zara. Niri hori gertatu zait, behintzat.

—Baina, nola bururatu zitzaizun hura joatea?

—Zer esango dizut? Hori, betiko historia da. Ni ez nintzen lan arazoari inportante bategatik, Nik Ameriketara joan nahi nuen, horixe zen nire helburua. Nire aita Patxi eta aurrekoak ere Ameriketara joanak ziren, han ibili ziren Terranoban, eta beste leku batzutan... Osaba bat ere izan du han. Nire kuadrillatik ere han ibili dira, han barrena, Venezuelen, Bolibian, etabar... Nik halakorik eginik ez nuenek, momentu batian pentsatu nuen "oraintxe ez baniak, ez naiek sekula fango", eta haxe abiatu nintzen arruti.

—Horregatik joan al zinen Nikaraguara?

—Nik zerbait entzuna nuen Nikaraguari buruz, eta nire pentsakizuna mixiko Nikaraguara joango nintzela izan zen, eta handik laister Hego Amerikara pasatzea, mendi batzuk igo, eskaladak egin, eta horrela Chinborazo eta Cotopaxi bolkanak, munduko politenak omen dira, 5.000 eta 6.000 metrokoak. Hara joateko gogoz arazi nintzen etxetik, eta hala pentsatzen nuen.

—Eta zer gertatu zen?

—Itziri nintzela Nikaraguara, hemendik neraman direktio batekin lagun bat bilatu nuen... Oroitzen naiz Managuan gau bat pasa nuela, eta hurrengo egunean kostako herri txiki batera joan ginen, eta berehala lanean hasi. Mixiko hamabost egunak, karretillak konpontzen pasatu nituen. Nekazarien kooperatiba bat zen, eta badute eskola profesional agro-pecuaria, eta ikasi eta lana egiten dute. Karretilla pilla bat zuten konpontzeko, eta halaxe eman nion hasiera nire bizitzari Nikaraguan. Gainera, klaseak ere eman nituen, elektrizidadearekin. Baratzan ere egiten nuen lan, eskolak egiteko

ANJEL ALKAIN



txillarra eta herratza jasotzen... Gero, beste herri batera joan ginen, eta han arroza biltzen, etabar. Baita ohianako arbolak eta aizkoraz moztzen, enborrak botzen.

—Zein aldetan zen hori?

—Pazifikoko alde. Bi hilabete egin nituen han, herri batean, eta beste hiru hilabete leku desberdinetan. Gero kafea biltzera joan nintzen. Kafearen bilketa izugarria da. Kafea da, izan ere, hanga aberastasunik haundiena, eta haren beharra dute. Kafe garaia datorrenean, eskoletan oporrak ematen dira, ministeriotan ere bai, eta guztiak kafea biltzera doaz, ministro eta guzti.

—Zein da problemarik gorriena Nikaraguan?

—Badakizu Nikaraguan gerra dagoela. Estatu Batuek ez dute onartu hanga iraultza, eta merzenario bidez, eta somozista bidez, desegin nahi dute herriak egin zuen iraultza. Orduan, bai irarretik eta bai hegoaldeko irasoka ari dira yankien laguntza sandinisten kontrarioak. Nikaraguako gobernuak lan haundia du, eta premia latzak, gainera. Kontu egizu nazioko presupuestotik ehunetik 60 (60%) gerrarako jarri beharrean aurkitzen dela. Horrek posibilitate haundienak kentzen dizkio berr programa aurrera eramateko.

—Eta zer egiten du Anjelek han?

—Nikaraguan teknikoren beharra dago, oso gutxi daudelako. Han, sandinistak agintzen jarri artean, 95% analfabetoak ziren. Han apenas zegoen injeniadore, perito, sendagilerik... Nik esan dizut, ez nintzela joan han gelditzeko asmoz, handik berehala salto bai egiteko asmoz baizik. Baina horrenbesteko premia ikusi nuenen, bertan geratu nintzen. Zer egin dudan? Ba, batez ere, herririk berriena proiektoko.

—Herriak egiten?

—Bai. Gerratik iheska jende aska jectsi da menditak, eta harentzako auzoak edo herriak egin behar dira. Etxetxoak, eskola, biltokia, tailerra, nekazari koope-

ratiba, tresnak gordetzeko lekuak, haurrentzako jantokiak... herritxo bat. Haurrentzako jantokiak esan dizut. Badakizu zergatik? Haurrei janari bereziak ematen dizkielako gobernuak, indartu eta sendotu dadin hanga jendea, ba iraultza arte oso gaizki elikatua bizi izan da jendea. Gobernuak herri sanoa nahi du.

—Herri berriak egiteko, nondik duzue laguntza?

—Gobernuak gutxi dezake, nahiko lan bait du aberria defenditzeko. Orduan, kanpotik datu laguntza haundia. Guk denetik behar dugu. Batez ere, herramienak: karretillak, pikoak, mailuak, serrak, motosierak, trintxak, ura garraiatzeko tuboak, bonbak, karrikak... Begira, lur gorrian herri bat egitea da, ezerezetik jasotzea. Bertako jendeak ezin du, kanpotik lagundu behar.

—Iristen al da laguntza hori?

—Bai, eta hemen Euskal Herrian ere borondate haundia dago horretarako. Orain bertan kanpaina bat eratzen ari gara, eta esperantza haundia dugu.

—Zer lortu duzu zuk han?

—Hainbeste dagoeneko egiteko, ezer gutxi egin dugula dirudi, baina ahal den guztia egiten da. Ni goizeko oilarrekin batera jekitzen naiz, bostak aldean, eta berehala hasten naiz lanean. Esan dizut nire lana proiektoko eta egitea dela gehienbat; gero obrak eta kusi behar dira, jendeari hitz egin, jectsiak, presupuestoak, kredituak, ministeriora joanetorriak, eta, behar den gurtietan, hartu haizkora edo serra edo mailua, eta jotakel.

—Arrantzarik bai al du?

—Apenas. Arraina bai ugari eta asko eta denetik. Baina arrantzalerik ia ez dago, ez ontzirik, ezereiz. Añ Hondarribiko arrantzaleak hartuko balute hanga arrain pila! Eskuz atzematen daitezke.

—Zer pentsatzen duzu hanga jendeari buruz?

—Nikaraguako jendea oso noblea da. Nirekin oso ongi portatu dira guztiak, eta nik ere asko maite dut hanga herri xea. Ni beuren familiakoa bezala hartu ninduten, eta ez dut inoiz ahaztuko herri hura.

ANA MARI AGIRRE

Janaridenda

Guadalupe Auzoan Tel. 641773
HONDARRIBIA

TXUNTUXUMELA

Belardenda

Santiago Kalean HONDARRIBIA

Anjelek esandako guztia ezin dugu hona jaso, lekuri ez dagoelako. Dena dela, bi urte han igarota gero Nikaraguari ongi ezagutu du, eta nork daki berrirori ez ote den joango. Eskerrikasko, Anjel!

GOGOETAK

Maitasunaz ari naizenean, luzaz egoten naiz, nere baitan, neure maitaarekin solasean. Esan daiteke, gehien atsegin zaidan gaietako bat dela. Bizi garenek badakigu ongi zein garrantzitsu den maita-tzea eta maitatua izatea.

Nabaritzen dut zu nitaz arduratzen, interesatzen zarela; ohartzen naiz zure-tzat garrantzitsu bihurtu naizela. Norbait bliakatu naiz zuri esker.

Ni, zurekin topo egiterakoan jabetu naiz ere zertxobait ematen dizudala... Horren gutxi ordea! Zein urria den nire erantzuna, zuregandik jasotzen ari naizenaren-ekin gonbaratuz.

Nik zu, zaren bezala maita zaitudala, zure hazkundera eta zoriona nahi ditudala aitortu behar, "norbait" bihurtu nauzun

ezkerotzik. Benetazko elkarriketa sortu da gure artean.

Hona adibide bat, eman ditudan pen-tsakizun hauek hobeto ulertzeko:

Gazte denboran, Parisen Louvre-ko erakustokiko cicerone izan nintzen. Lan-gile erbestera talde bat eramaten nuen igande goizero aipatutako erakustokira, eta Sala bat bosterik ez genuen miresten. Nik, aztertzeak genituen kuadroen azal-penak ahalik eta hobekien prestatzen, as-te barruan eginahal guztiak egiten ni-tuen. Nahiz eta oso urduri egon hitz egiteko momentuan, nahiko ondo alera-tzen zitzaizkidan azalpenak, liburutatik jasotako kritika sakon eta bixiaki nereg-a-

natzen eta ematen saiatzen nintzelako.

Bada begira, Louvre-ko Sala batean elkartu ginen lehenengo egunean, nere adierazpenak bukatu ondano, usteka-bean eta gutxien espero nuen unean hur-bildu zitzaidan Nafarroako neska bat. Haren hitzak ez nituen gogoan jaso. Baka-rik esango dudana da esan zizkidanak "norbait" bihurtu nindutela. Elkarrekin geunden lehen egunetik oso garrantzitsu bihurtu nintzen talde horrentzat. Nere la-nak bazuen beraz erantzunik, eta alde be-rean talde horrek eman zidan neri bizitze-ko gogo.

Orduan jabetu nintzen ematea har-tzea zela.

Guadalupe ARTOLA

MAITASUNAZ

ANTXUAN KOSTERA

"Orioko balearen" doinuak kanta daitezke.

Goazen zortziko txiki-z bertsoetan hastera arrantzaleen penak kontatuz oster, nola betitu garen hogeitik bostera txarra izan delako antxua koster.

Mila bederatzirehun larogitabosta lãu kaja betetzia asko zaigu kosta, graziak preziuak gottikan dagoz ta, etxian probatzeko hortxe ozta-ozta.

Aurten ez dugu izan hortan enpatxurik "arrut" egin digute urdin eta txurik. Ez baitugu ikusi aurrean antxurik nolakoxeak diren esango dizut nik.

Holanda alde hartatik korriente galdian lehenbixiko antxua Frantziako aldiar; joiera oexteka gure kostaldian hemen atzaman leike apirila aldiar.

Gehien bizi orien da hor bizpahiru urte beraz ez du sumatzen guk hainbat elurte, aurten bezala bitan

uzten bagaituzte akabo betirako koster, nik uste.

Apiril-maiatzian urazalerago, sinialia antxua arraultzetan dago, hortxe atzamatan da txol hobeikiago, aurten egin dituzte lanak betiagi.

Txikia izan arren ez poderez txiro miloi l'erditik gotti arraultze aldiro. Besteok horrenbeste egin ez segido munduko bazterretan elitzake giro.

Arraultzeok udaran kostaldera faki hango arrai guzien desiozko jaki; udazkenez ur betti joaten ba daki, antxua're amaren semia izaki.

Arrantzaleok ere dugu ikasia nola den antxuaren kostako pasia; nola eguluxia dagoen hasia antxua gazte hori beittaren grazia!

Larbak hemen utzita zaharrenak aurrera ekaina inguruan berriz iparrera.

Guk ere bageneuka frantsesen jarrera hor jarriko genuke kristoren barrera.

Hauetxek ote dire antxuan oporrak? izaten dituzte ba gatazka gorrak. Aurten defizita du hemengo legorrik dibisa hoiiek gabe norik berinditu zorrak? Sesenta, sesentaiseis txol koster batxi; otxenta, otxentaizinko denokentzat gutxi. Sariak ez dire ta batetxo're hautsi galtza josi gabeak gehiago ez eutxi.

Hutsean pasa zaigu antxuan sasoiak ez dago garbi baina hau da arrazoi: eguraldi txarra ta sarri diazoia, bihan hobia dute ur kalefazioa.

Beste arrazoi batzuk ba dire, jakina: janari falta eta uraren zikiña; arrantza bera ere ez da beti pira antxua jaten, berriz, ona da lupinai!

Lupinaren onduan beste hemeretzi: gaur txixurru ta atuna, izurdi etzi.

Antxuek arraultzeak nahiz miloika utzi bale bakarrarentzat denak ere gutxi.

Denek pertsegittua antxua gaixua desagertuko zaigu gure arraitxua, arrantzale jendiak kauen ta arraxual, erregalirik gabe praile eta maixua.

Urakeri kulpa ta gauza gazi-gezak, arraiaren joierak aurten aldrebesak; pena eman badizu antxuan ihesak sabia jan ezazu ta egin ametsak.

Giro arrunta txarra sasoi hortan justu eta urak ziharo egin dire hustu. Horla ez da posible sakelikan puztu... hurrena hobia baietz nornshiri apustul!

Horra hogeit bat bertso antxuan kosteraz Hondarribi portuko hizkuntza joskeraz; hamabost bat baldarrak ta beste bost eraz antxuakei botzeko Holandan euskeraz.

1985ko uztaillean jarriak Jesusmari Mendizabal

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobeak

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

AXULAR
LIBURUDENDA

Didaktika jokoak
Euskal liburu eta diskak

Matxin de Arzu kalean - HONDARRIBIA

I. ALKAIN

Mertzera - Ehungitza

Arrantzale Auzoan, 13
HONDARRIBIA

KULTURA

"BORDARI" IPUIN
LEHIAKETA"SATARKA" OLERKI
LEHIAKETA

Euskararen zabalkunderako eta idazle berriak sortarazi nahian, bi lehiaketa hauek antolatzen ditu Hondarribiko Udalak, baldintza hauekin:

"Euskaraz idatziak, orijinalak, argitaratu gabeak, aurkeztu ondoren, ezingo da atzera egin, ipuinak gutxienez 5 eta gehienez 15 foliokoak, olerkiak 50 lerro gutxienez 5 eta gehienez 150, makinaz, bi espaziotan eta orrialde bakarren, hiruna kopia, izenorduz aurkeztuak, izenordea sariari banatu gabe gera daitezke, erabakiak apelaezinak, sarituak Udalerriaren jabetza, bi urte barru argitaratzen ez baditu, ordea, jabetza galduko da.

Sariak. a) 18 urtez gorakoentzat, 55.000 pezeta, eta lehenen geratzen den hondarribiarrari 33.000 pezeta; beste sari bat emango zaio. b) 18 urte artekoentzat, Hondarribian jaio edo eta bizi direnentzat bakarrik, irabazleak 37.000 pezetako saria jasoko du. d) "Bordari" lehiaketan aipamen berezia merezi duenarentzat, 25.000 pezetako sari berezia izango da.

UDAN NOLA ONGI
PASA 15 EGUN

Lan Ihardundialdiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi gaituen jartzen gaitu "Lan Ihardundialdiak" (campos de trabajo) prest daudela Gatzagan, Zegaman (San Adriánen), Zarautzen, Oiarzunen eta Laurgainen. Baina uste dugu guztiak, Laurgainekoa eziz, erdalduntzat direla. 18 urtetik gorakoentzat, 5.000 pezetako kuota ordaindu behar da.

Gainera, Estatu mailan eta estranjeri osoan ere antolatutak daude "Lan Ihardundialdiak", eta oso erraza bertara joatea.

Gauza hauetaz hobeki informatzeko, Donostiako Andia kaleko Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritara dei telefono honetara: 42.65.20.

Dena dela, Araban: Zuazako Irlan, Labrazan, eta Lalastran dira leku horiek. Gipuzkoakoak, esan ditugu. Bizkaian: Zaldibarren, Izurzan, eta Gueñesen. Nafarroan, Beran.

Gero, Balearsetan, Katalunian, Aragoian, Andaluzian, Castilla-La Manchian, Murzian, Castilla-Leonen, etabar. Badago aukera, eta gazteentzako oporrak piska bat hobeto igarotzeko erraztasuna.

Kanpamendu eta udaleku

Baita Foru Aldundien eskutik dator-kigu beste informazio hau ere.

8 urtetik 16 urterainokoentzat, udalekuak prest daude Euskal Herrian banaturik. Prezioa, 9.775 pezeta.

Familia osoarentzat oporrak

Helduek: 15.000 pezeta; 12 urtetik beiti: 10.500 pezeta; urtebete beiti: doan.

Non diren oporrak igarotzeko lekuak? Bizkaian nahi baduzue: Plentzian. Araban: Espejo eta Barrian.

Gipuzkoan: Zarautzen, eta... nahi baduzue Elkanon albergean, herritik irten gabe.

Hirugarren adinekoentzat ere bai

Familientzat esandako leku beretan, ekainan eta irailan, hamabostalditxo paxara paxarari igarotzeko.

Hamalau mila pezeta ordaindu eta lasai jango Bizkaian, Araban edo Zarautzen egungotxo batzuk. Gaizki?

Nora deitu?

Gauza hauen berri zehatz... nahi duenak, jo beza udaletxera, edo dei telefonoz Gipuzkoako Foru Aldundira: tel. 42.36.70.

ESKIFAIA

Gaurko honetan zenbait berri agertu nahi dugu, ez Eskifaia abesbatzari dagokionez bakarrik, baizik eta erakunde honen barruan dauden beste bi talderi buruz ere.

Denok ezagutzen dugu Eskifaia Txikiak daraman izugarritzko "martxa". Neska kamutil talde hau gogor ari da, eta, jadanik, aurtengorako saio bikainak prestatzen ari da. Maiatzean ekiniza hauek betekot dituzte.

Maiatzaren 10ean, larunbatez, lau abesbatza bizkaitar etorriko dira Hondarribira: Ondarroako "Etorkizuna", Bilboko "Colegio Público Félix Serrano", Sondrikako "Atseginak", eta Elorrioko "Escuela Colegio Público Alejandro Goikoechea". Denetara berrehun haur, eta arratsaldeko 8tan kontzertua eskeinitu dute Eliza Nagusian.

Maiatzaren 17an, Eskifaia Txikiak Tolosan abestuko du, Donostiako San Inazio Eskolaniarekin batera. Eta 24an, bi koro hauek elkarrekin berriro, Donostiako "La Gastronomía" elkartearen ikus dezakegun bezala, haur hauek ez dira geldirik egotekoak.

Eskifaia abesbatzak, aldis, hilabete honetan saio bakarra izango du; hilaren 14an kontzertua Donostiako Antiguako elizan. Baina urtean zehar garrantzizko saioak izango ditu, eta aurrerago guzti honen berri emango dugu.

Eta azkenik, talde berri baten aurkezpene egingo dugu. Bada bizpahiru hilabete neska gazte talde bat gogo onez eta ilusioz betetarik ensaiatzen dabilela; honela jarraitu ezker, urte bukaeraren beraien kantutako entzuteko aukera izango dugu. Honelako entzuteak aukera jartzen direla jakiteak benetan pozten gaitu, eta gure gogorik onenak eskaintzen dizkiegu neska jator horiei.

Maribí Mariscal

BURBUXAK

Artileak pisura
Neurriko elastikoak

Santiago kalean HONDARRIBIA

LUISA

Arrandegia

Zuloaga kalean Tel. 641757
HONDARRIBIA

GALARZA

Garbigaidenda

San Pedro kalean HONDARRIBIA



S. Pedro kalean Tel. 642734
HONDARRIBIA

GABI

Loradenda

Al. Alonso kalean Tel. 642107
HONDARRIBIA

MEI

Mertzzeria

San Pedro kalean, 49 - Tel. 642071
HONDARRIBIA

APIRILA GAIZKI PORTATU DA

Lehenago, udaberriaren zai egoten ginen arrantzaleak, garai honetan antxua, eta legatzak, eta xardina, eta berdelak, eta bisigua, erruz atzematen zelako. Baina, badira urte batzu horrelakorik gertatzen ez dela, eta udaberriak aurrera eta aurrera egin arren, ez dugu arrainik ikusten.

Hauxe da aurtengo panorama ere: apenas arrantzarik, legatzik ez, antxuarik ez, berdelak bai zerbait baina ez du dirurik egiten; xardiniak, berriz, ez du merezi atzematerik, ez du inork erosten eta.

Apirilaren 14an, 40.000 kilo berdel saldu ziren, 40 pezetan kilo. Erdia Frantziara eta Italiara eramane zuten, eta beste erdia fabriketara. Hauxe da kostera guzti-ko joera, ia berdel guztia Frantziara esportatzen dela, eta gutxi xeago Italiara.

Hilaren 15, 16 eta 17an, atara ziren barkuak, baina eguraldi txarragatik etxera etorri behar izan zuten, nahiz eta berdelakoa eguerdirarte itsasoan gelditu. Antxua bila 14an joan eta 15ean ezer ga-be etorri ziren, eta aste guztian ez ziren gehiago atera, eguraldiagatik. Martxoan erdi ezkerotzik ez dute antxuarik atzeman, eta orduan ere 140 miletatik ekarri zuten.

• 21 eta 22an, 140.000 kilo berdel sartu ziren, batz best 33 pezetan kiloko.

ARRANTZA



- 23an, 100.000 kilo berdelak, 32,20 pezetan. Antxuzaleak, berriz, itsasoratu ziren arratsaldeko 5etan, eta ezer atzeman ez, eta hurrengo egunean ere itsasoan gelditu ziren, baina alperrik.
- 24an, 80.000 kilo berdelak, 33 pezetan.
- 25ean, 120.000 kilo, baita ere berdelak, 32 pezetan.
- 28an, 40.000 kilo berdelak, 34 pezetan.
- 30ean, azkenik agertu zen antxua pis-ka bat: 75.000 kilo, 290 pezetan kilo; batz best. Hori ez da ezer, kontuan harturik 26 ontzi direla antxuatzen da biltzanak.
- Berdelaren kanpaina bukatutzat jo behar da honez gero, ba mendebal aldera (oestera) urrutiratzen ari da, eta sai-neurria ere, 33 pezetakoa, oso merke da, eta ez du merezi.
- Legatzetan hamabiren bat ontzi ibili dira, baina hauek ere ez dute suertetik izan: gutxi atzeman eta merke saldu, agian Pasaian legatz asko zegoelako.
- Maiatzak ekar dezaigula denetik gehiago, eta ea eguraldia ere hobetzen den.
- Apirilaren 12an Hondarribiko Koman-dantzan Endaiake PEDRO JOSE ontziarekin gertatu zen hauzia ikusi zen, baina Endaiake patroia ez zen agertu. Hondarribiko arrantzaleen abogadua Jabier Saenz de Pipaon madrilarr eza-guna da.

ANDRES

HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERAK

APIRILEKO JAIOTZAK

- 2an: JAVIER Sanz Susperregi.
Francisco eta M.^a Carmenen semea.
Bidasoa kalea, 2.
Aitaren bizibidea: Irakaslea.
- 6an: NAGORE Arbelaitz Pascual.
Angel eta M.^a Inesena alaba.
Eguzkilore, 7. 3.
Aitaren bizibidea: Gidaria.
- 9an: AMAIA Cores Alkain.
Marcelino eta Guadaluperen alaba.
Jesusa-enea etxea - Matxin de Arzu kalea.
Aitaren bizibidea: Elektrikaria.
- 11n: FRANCISCO JAVIER Otxandorena Genua.
Francisco Javier eta Margaritaren semea.
Mendelu-berria, 1-Zubieta kalea.
Aitaren bizibidea: Gidaria.
- 11an: IZARO Retegi Ado.
Jose Luis eta Guadaluperen alaba.
Gibeleta, 20-A - Mendelu auzoa.
Aitaren bizibidea: Mekanikaria.
- 13an: MAYI Ageda Iza.
Enrique eta M.^a Joseren alaba.
Brunenea-A-1.
Aitaren bizibidea: Optikoa.
- 14an: NEREA Arrieta Arabolaza.
Angel M.^a eta M.^a Dolorenen alaba.
Guadalupoko Ama, 5.
Aitaren bizibidea: Elektrikaria.
- 15an: IGNACIO Iturría Elzo.
Jose Ramon eta M.^a Victoriaren semea.
Matxin de Arzu, 4-1.
Aitaren bizibidea: Mekanikaria.

- 17an: AMAIA Tife Cuenca.
Jose Migel eta Josefaren alaba.
Lur-gorri, 2 - R. Irribarren kalea.
Aitaren bizibidea: arrantzalea.
- 21ean: IKER Pablos Tolosa.
Manuel eta M.^a Rosarioren semea.
Soldadoenea-berri - Arkoll Auzoa.
Aitaren bizibidea: Gidaria.
- 25ean: JOSEBA Toribio Rebollada.
Jose Francisco eta M.^a Gemma-
ren semea.
Santiago Konpostela, 4.
Aitaren bizibidea: Industria.
- 26an: UXUE Barrio Salas.
Juan Ignacio eta M.^a Socorroren alaba.
Eguzkilore, 10.
Aitaren bizibidea: Administratia.
- 27an: GORKA Urkia Estonba.
Luis eta Josefaren semea.
Eguzkilore, 5.
Aitaren bizibidea: Mekanikaria.

APIRILEKO EZKONTZAK

Herriko semeak

- 12an: JOSE LUIS ARTOLA GARMENDIA.
29 urtekoa - Hondarribian jaio eta Donostian bizi dena.
M.^a EUGENIA VILLANUEVA INURRATEGI - 23 urtekoa - Donostia-
rra.
- 26an: DIEGO FERNANDEZ-MONTES BELGOL - 36 urtekoa - Donostian jaio eta hemen bizi dena.
MARTA GALLANO PETIT - 34 urtekoa - Irunen jaio eta hemen bizi dena.

- 26an: JUAN M.^a LEKUONA MUÑOZ - 30 urtekoa - Hondarribiarra.
M.^a MILAGROS SERRANO BEASAIN - 26 urtekoa - Irundarra.
- 26an: JOSE RAMON LEKAROTZ PEREZ - 26 urtekoa - Donostian jaio eta Irunen bizi dena.
M.^a LOURDES ROCA LORENTE - 26 urtekoa - Hondarribiarra.

APIRILEKO HERIOTZAK

- 5ean: FRANCISCO ZABALA ALONSO.
43 urtekoa.
Kosta, 12.
- 12an: MARIANO BELLO IBAÑEZ.
74 urtekoa.
San Nikolas, 3.
- 14an: IÑAKI SARRIEGI SEIN.
17 urtekoa.
Miramar, 4.
- 21ean: BERNARDA KANPANDEGI ETXEBERRIA.
74 urtekoa.
Argentina etxea - Mendelu auzoa.
- 21ean: CARLOS OLASKOAGA CAMINO.
79 urtekoa.
Almirante Alonso, 5.
- 25ean: CELESTINA BENGOTXEA AGIRRE.
79 urtekoa.
Iturri-berri.
- 26an: CELESTINO OLAZABAL MARTIARENA.
56 urtekoa.
Harma Plaza, 10.

ESKOLETAKO ORRIA

IKASTOLAKO HAURRAK BASERRIAK EZAGUTZEN

Seigarren mailakoak baserriak eza- gutzera joan dira, taldeka. Baserritarren lanak, egoera, iritziak, teknikak, arazoak... Herriko haurrek mundu hau ezagutzen oso garrantzitsua da, askotan kalea besterik ez dutelako ezagutzen.

Gero, ikastolara itzulitakoan, lantxo bat egin dute, zer ikusi eta ikasi duten kontatuz. Hona hemen horietako lantxo bat.

"AGIRRENEA"

Gaur goizean AGIRRENEA baserrira joan gara. Baserri hau Semisarga etxadi- an kokatzen da. Baserriko senar-emazte- tak harrera goxoa egin digute, gure gal- dera guztiei ongi erantzunez.

Baserri honek bere lurrak aurrekal- dean eta albo batean ditu. Lur hauen he- dadura 19.000 m²akoa da.

Lur hauetan gehienbat landatzen di- ren laboreak: artoa, arbia, erremolatxa, patata, letxua, lekak (bainak), babarruna eta alpapa dira, eta hauen artean, arbia gehien lantzen dena.

Ez dakite beraiek zein proportziotan landatzen duten labore bakoitza. Beraiek hazia erreiten dute, eta landareak hazten diren neurrian jaso.

Lur dena landua dute. Lurrek ez dute erregadioko teknikarik, sekaiekokoak dira (euriz bustitzen direnak, alegia).

Lugorrik ez dute egiten, lurrak urte guztian lantzen dituzte. Hau horrela izan- nik, lurrak lantzeko ongariak behar dituzte, horretarako ximaurra erabiltzen.

Lurrak ez dira beraienak, jabe bate- nak dira.

Bi pertsonak lantzen dute lurra: sen- ar-emazteak. Semeak, denbora duenean ere bai.

Lantresnen modernizazioari buruz esan dezakegu, lurrak zabalak eta haun- diak ez direnez, ez dutela lantresna mo- dernoren beharririk. Duten bakarra eta ga- rrantzitsuena, traktorea da. Lurrari buelta emateko erabiltzen dute bera. Beste de- na, eskuz egiten dute.

Baserri honetan ez dute negutegirik. Uztak ere beraientzat dira.

"AGIRRENEA" baserrian, sei behi eta bi txekorak dituzte. Arrazari dagokionez, bi behi suizkoak dira, eta beste laurak pin- tak. Orain txekorrak eduki behar dituzte- nez, esne gutxi ematen dute. Normalki, esnea esneketariarengana eramaten du- te. Behiak ez dituzte saltzen; zaharitzen direnean, hiltzera eramaten dituzte.

Arrazoi honegatik lantzen dute ho-

rrenbeste arbi, behientzat bazkaria lor- tzekeo.

Beste abere bat ere badute: astoa. Baratzetako laboreak etxera garraiatzeko erabiltzen dute astoa.

Azkenik, etxea zaintzeko, hiru txakur dituzte.

Alaitz A.
Iratitz Z.
Garazi L.

Eider M.
Amaia F.
Amaia C.

ZUZENKETA


Errebistako lehen zembakian, zenbait datu agertu ziren Hondarribiko ikastetxei buruz, alegia, zenbat haur dagoen zentro bakoitzean, eta ze nolako ereduak erabiltzen den euskarari buruz. Baina zuzenke- ta bat egin beharrean aurkitzean gara: Jesus Hauraren Ikastetxean orain dela bi urte 8 ereduak jarri zela eskolaurrian, ho- rrela datorren urterako eskolaurri osoa 8 ereduari izango delarik. Oker esana zu- zentzen dugu, beraz.

(B ereduak: gai batzu euskaraz eta beste batzu erdaraz.)

DATORREN IKASTURTERAKO MATRIKULA

Datu definitiboak ez diren arren, ho- na hemen guk jasotakoak:

Hondarribiko Ikastolan: 38 haur: Je- sus Haurra: 26 (tarte 2 urteko batzu direlarik); Mendelun: 1; Puntalean, 6 (3 D eredurako, 3 B eredurako); Sorotetan, 13 (tarte 2 urteko batzu); Ama Guadalupe- ko eta San Jose ikastetxetatik ez digute eman datorik).



Loli eta Anuntzi

IKASTOLA

Eusko Jaurilaritzako plangintzari ja- rraituz, datorren kurtsioan ikastolako gela guztiak Aginagalden sartuko dira. Berta- koek baita ere bertan jarraituko dutenez, gela gehiegi izango dira zentro baterako, baina urteak pasa hala, berriro 16 geleta- ra jentsiko dira laister.

ESKOLA EGUTEGIA

Egutegira begirada bat boteaz, haxe- kikusiko dugu: ez zaigula ezer falta ikastur- tea bukatzeko. Kontutan hartzen badugu maiatzak dituen bi zubiak, eta ekainan zenbait egun kanpaldiak egiteko erabilt- zen direla, azken txanpan gaude. Laister kontuak!

JAUNARTZEAK

206 haurrek egingo dute beuren le- henengo Jaunartzea aurten Hondarri- bian.

Jasokunde Parrokian

Maiatzaren 4an, 85 erdaldunek.
Maiatzaren 11an, 92 euskaldunek.

Amuteko Parrokian

Maiatzaren 11an, 6 euskaldunek eta erdaldun batek.

Mendeluko Parrokian

Maiatzaren 25ean, 14 erdaldunek.
Ekainaren 1ean, 8 euskaldunek.

Haur guztien izenak ez goaz jartzera, oso luze joango litzaigukelako. Barka be- raigute gurasoek eta haurrek.

ARRAUNLARI

Jatetxea

Butron Ibilbidea Tel. 641581
HONDARRIBIA

MARTINEZ ORTIZ

Haltzaridenda

Butron Ibilbidea
Tel. 642647 dendakoa - 643423 etxekoa
HONDARRIBIA

LUC
Argazkigintza

Zuloaga kalean, 18 Tel. 641972
HONDARRIBIA

GAZTERIA

INAKI SARRIEGI SEIN, 17 urteko gaztearen eriotzak esan beharrik ere ez dago atsekabeturik utzi zituela bere adiskide, lagun eta gazte guztiak.


Hona hemen, Inakiaren hiletan bere lagunak irakurri zioten gutuna, eta eskaintzen dioten olerkia.

"Bart arratsean, zure izaera oroitzu elkartu ginen zure lagunak; denekin igarotako uneak gogoratu, honela hemen gatzotz eskutitz hau zuri zuzentzeri."

Inaki, zuk milaka gauzetaz galdetzen zenuen benidanik, zergatiak bilatu nahian. Behar bada, orain zenbait erantzun aurkitu duzu.

Esan behar dizugu ibili zaren toki guztietan utzi dituzula lagunak; denen laguna izan zara, guztien arazoak ulertzen saiatzen bazinen. Kirolez ere ari bagina, kirolak ziren zure gaia, apalki ematen zenuelarik zure iritzi. Natura maite zenuen, itsasoa, haizea, mendia eta abereak. Maiz proposatzen zenuen mendira joatea, baina baita zenuen zinema, kirola, festa... gure adinekoko edozein gazte bezala.

Umore ona zenukan eta lagunekin txantxetan ibiltzea gustatzen zitzaizkin.



Lotsatia zinen, baina baita ausarta ere, behar zenean. Eskuzabala zinez, gauzak erraz ematen zenituen.

Guk, benetan, ez dugu oraindik gertatutakoa sinesten eta kostatuko zaigu onartzea, zeren oraindik gurekin jarraitzen duzu, nahiz eta portuko ibilaldiak ezberdinak izan zu gabe."



Gaur, hemen, denok bildu gerade barrenean min iluna.

Gure bihotzak zerbait galdtu du bera zen ta, guk genduna.

Txit triste eta poztu ezinik utzi du gaurko eguna.

Zinez nahi dugu bihotzetikan omentu gure laguna.

Hil zerala ta, negar malkotan biziki triste gaude gu.

Udaberria Hondarrribian zuk bihurtu duzu negu.

Jaungoikoari, ondo zain zaitzan, eiten diogu erregu.

Zerurik bada, han zaude zihur hortan zalantzarik ez degu.

Malkotan gauden bere lagunak in nahi diogu opari.

Mundu hontatik joan den arren, ez zuen merezi hori.

Orain zerutik ikusitzen du, negarrez gerala ari.

Bihotzak postuz, kanta zaiogun zeruian dagoenari.

Zure lagunak

(1986-ko Apirilak 14, Astelehena)

GAZTEEN EKINTZAK

- **Apirilaren 23an**, "LA FUGA DE SEGOVIA" filmea bota genuen Gazte txean. Hirurogeita hamarren bat lagun bildu ginen.
- **26an**, "BAP" eta "VOMITO" taldeen kontzertua, 200en bat pertsonakin.
- **Maiatzaren 10, larunbata**. Gazte txeen okupazioaren lehen urteurrena. Programa hau antolatuta dugu. Goizean, "OPERACION OGRO" filmea. Guerdian, bazkaria. Gazte txean noski. Tikitixa eta bertsolariak ere bai. Gauean, "Danba" eta "Zer-bizio?" taldeen kontzertua. Sarrera, 100 pezeta.
- **Maiatzaren 11, igandea**. Antzerkia, Institutoko antzerkitaldeak. Beste pelikula bat ere botako dugu maiatzean. Aldez aurretik jarriko zaituztegu jakinaren gain.

Eukeni



KULTURA

LIZENZIATURAKO TESINA

Nafarroako Unibertsitatean, aurkeztu berria da "HONDARRIBIAK AZTERKETAK DEMOGRAFIA XIX. MENDEAN (1801-1874)" izenburuko Lizentziatura tesina.

Egilea, Maite Murua, Donostiako Irakaslego Eskolako irakaslea eta Hondarrribian bizi dena.

Iturburu bezala, Parrokiako Bataio, Ezkontza eta Hildakoen liburuak erabili dira, hauek baitira Erregistro Zibila serioski erabiltzen hasi aurreko iturri demografikori onenak. Laguntza bezala erabili dira, baita ere, Udaletxeko Artiboko zentsu eta erroldak.

Materiale hauen bidez ezagutu ahal izan diren atalak hauek dira:

1. XVIII. mendearen bukaeran hasi eta XX. mendearen hasiera bitarteko populazioaren bilakaera.

2. Jaioakuntza. Kapitulua honen barrenean agertzen da zenbait xehetasun: urtearen zein sasoiaren jaiotzen zen haurren gehiago, mendearen zehar jaioakuntza gertatutako gorakada eta beharrekadak, gurasoen ogibidea, eta hemen agertzen zaigun baserritarrak, arrantzaleak baino askoz ugariago zirela...

3. Hilakortasuna. XIX. mendean, gerrateak eta izurriteak (bartzanga, kolera) kalte handiak egin zituzten Hondarrribian. Aipatzekoa da, baita ere, itsasoan itotil hiri ziren arrantzaleen kopuru handia.

4. Ezkontzak. Ikus dezakegu, urtearen zein sasoiaren ezkontzen ziren hondarrribiarrek, ze adinetan...

5. Migrazioak. Azkenik, Elizako liburuak, populazioaren bi mailetakok lekualdaketa adierazten digute: bata barnekoa, hau da, haur bataiatuen gurasokongoak diren azaltzen digu. Kanpotarrak, neurri handian Gipuzkoako beste herrialdeetakoak eta, baita ere, beste euskal lurraldeetakoak ziren.

Beste lekualdaketa, Ameriketarakoa da. XIX. mendean Hondarrribiar asko joan zen itsasoan beste aldera. Batzuk han hil ziren, eta hemengo liburuetan jaso zen heriotz eguna. Beste batzuk hotariarioren aurrean egin zituzten beharrezko papearak. Horiei esker jakin ahal izan dugu emigrazio dextentea izan zela. Beste asko ere joango zen, nahiz paperetan ez agertu.

Hauek dira, lan honetan agertzen diren xehetasunik aipagarrienak.

Jose

KIROL TXOKOA

PILOTA BIZI DA HONDARRIBIAN

Orain dela hiru urte, 1983ko kurtso hasieran hain zuzen, Norberto Trantxek, ikastetxetara dei bat eginaz, 30 mutil bildu zituen bere inguruan, pilotan hasteko. Hizia ifindua zegoen!

Gaur egun, talde hau 70 mutikok osatzen dute. Hor ikusi ditzakezue jo eta ke pilotalekuan edozein egunetan. Saiok edo entrenamenduak bitan banatu dituzte: astearte eta asteazkenetan 5etatik 7tara guztientzat; eta astelehen, astearte eta ostegunetan, 8etatik 10tara gogorrago ekiteko, edo eta beste ordutetan ezin dutenentzat. Pilotariak ere sei kategoriatan daude sailkatuak, adinaren arabera.

Pilotari hauen martxa ez da txantxetako. Trantxek dion bezala: "Dagoeneko baditugu bi mutiko paleta sailean Donostiako pilota eskolara bidaliak, eta atzetik ere elementu onak datoz".

Txapelketak

Herrian bertan bi txapelketa antolatzen dira: Eskolartekoa, eta Hondarribikoa. Eskolartekoa da, Trantxek behin eta berriz dioenean, denaren oinarri. Aurtin noiz baino pilotari gehiagok hartu du parte. 10 urterik behera, 30 bikote; 12 urterainok, 14 bikote; 14 urteraino, 9 bikote; eta 15-16 urteko bi bikote.

Txapelkunak hauek izan dira: Eneko Aranburu eta Ander Dominguez, 10 urteretik beherako artean, Carlos Quiñones eta Sagarazu, 12 urte artekoetan. Lander Camio eta Waika Garzia, 14 urterainokoe-

tan, eta Xabier Goikoetxea eta Iker Orbe-gozo, 15-16 urtekoetan.

Hondarribiko txapelketa laister hasi-ko da, eta paleta eta larruzko pilotaz lehenengo aldiz jokatu da. Banaka, bigarren urtez, eta binaka hirugarrenez. Txapelketa honetan kategorio guztiak hartzen dute parte, eta, dakizuezen, finalak herriko jaietan ospatzen dira.

Txapelketa probintzalean ere hartu dute parte gure pilotariak, txikiak eta 14 urtekoek aurrera jarraitzen dutelarik momentuz.

Bidasoako txapelketan ere lan ona egin dute. Aurtin Lesaka eta Endaiak jokatu dute finala. Herriarte txapelketan, berriz, ez dute hartu parterik, ezta baida batzu izan direlako.

Laguntza piska bat behar dugu

Ikusten dugunez, pilotak hartu du bere bidea Hondarriban, baina laguntza behar du aurrera jarraitzeko. Laguntzeko prest dagoenak ez du urruti pilotalekua. Deia egin da gora.

Hona hemen beste berri batzu:

- Badirudi Donostiak honutzako herriarte txapelketa, Soroetako pilotalekuan jokatu dela aurtin.
- Hondarribiko Eskupilota Eskola antolatzen ari dira.
- Hondarribiko herriak noiz eskainiko dio omenaldia pilotaren alde hainbeste idatzi duen Teodoro Hernandezoren? Hondarribiko txapelketako azken partidea omenaldi gisa? ...

Mikel Mariskal

ZIKLOTURISTAK

"HONDARRIBIKO TXIRRINDULARI ELKARTEAK" ateraldi hauek proposatzen dizkizu maiatza eta ekaina hasierarako: Maiatzak 11: Andoainera (80 km.); 18an, Larresorra (80 km.); 25ean, Hernanira (65 km.); ekainaren 1ean, Iruñitara (95 km.).

Zikloturista txikiak, berriz: Maiatzaren 11an, Etxalarako Bentetara (48 km.); 18an, Sunbilara (60 km.); 25ean, Hernanira (65 km.); eta ekainaren 1ean, Pasaiaiko farolera (40 km.).

"MARLAXKAKO ZIKLOTURISTAK", eta hauekin batera animatzen direnak, leku hauekara joango dira: Maiatzaren 11an, Pikoketara (50 km.); 18an, Urnieta (62 km.); 25ean, Dantxarriera (85 km.).

MENDIRA

Ikastolako guraso batzuk antolatuta, zazpi ateraldi egin dira, dagoeneko, beste horrenbeste menditara. Ateraldi hauek parte hartu dute bai guraso eta bai haurrek. Orain arte egin direnak hauek izan dira: ZARIA (630 m.), AIAKO HARRIAK (832 m.), IZARRAITZ (1.026 m.), LESAKAKO SAN ANTON, Urrietako ONYO (800 m.), ARALAR (1.300 m.), eta GORBEA (1.475 m.).

Maiatzaren 17/18an, Bidamiako GAZUME-ra igoko dira (1.013 m.). Eta ekainaren, 15ean, Nafarroako parajerik ederrenetako batera: BELAGOA-ra.

Goazen mendirik mendi mendigoizaleak, goazen aldapa gora euskotar gazteak, haize osasuntsuaz bizitza indartzera, ta ABERRI guztiari agur egitera!

ARRAUNA

Lehenbiziko notizia, Mendeluko TXANPA elkarteak BATELA atera behar duela. Lehen ere baditu bederatz bi bandera irabaziak, eta oraingo honetan ere indarrean datozela esan digute. Suerte haundia opa diegu Mendeluko arraunlari bizkorrei! Aupa! eta aurrera beti!

Baina ez dire mendeluarrek bakarrik. SANTI LARZABAL eta MIGUEL TOVAR arraunlari berri berrien hazi oparoa ari dira eriten. 11tik 18 urte bitarteko neska mutilak dituzte beuren eskuetan, eta, aha!eginak eginaz, paper ona ari dira gipuzkoako batel txapelketan.

Juanjo eta Erramun

AROZENA - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

JUAN ALKAIN JAUREGI E.A.

"SUPRA" eta "DEDIETRICH" en
banatzaile bakarra

Mendelu - Tel. 642025 - HONDARRIBIA

EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540

HONDARRIBIA



GAZTEAK GARA 106 URTE DITUGU.

Aurrezki-Kutxen ideia munduan zehar zabaldu baino askoz ere lehenagotik hasiak ginen gu gipuzkoaren aldeko lanean.

Eta gaur Kutxa gazte bat gara. Eta, gipuzkoak bezalaxe, etorkizun oso bat daukagu eraikitzeko.





Mundua aldatzen ari delako. Eta oraindik gehiago aldatu behar duelako. Teknologia berriak, ohitura berriak eta erronka berriak dauzkagu itxoi ten guztiok.

Baina gure lur hau jadanik ohitua dago problemei konponbideak aurkitzen. Problema handiei, gainera, batzuetan.

Eta beti aurkitu izan du bere jendeen artean etorkizuna eraldatzeko behar hainbateko gogoia eta lehia.

Eta horretantxe gaude. Zerbitzuzko historia oso bat dugula atzetik. Eta eraiki beharreko etorkizun oso bat aurretik.

Geure etorkizuna. Gipuzkoar guztiona.



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL



AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA

UDALA

Gure Udalak, Apirilaren bi Pleno edo Batzar Nagusi ospatu zituen, bata berezia, apirilaren 14ean, ohizkoak bestea, apirilaren 24ean. Hartutako erabakiak hauek izan ziren:

Apirilaren 14ean:

- Hiru udaltzain, Udaltzain-burua eta Administrazio laguntzaile bat hartzeko frogak egitea.
- "Finka Zubieta" delakoan eraikitako atzeratuaren zentrua lehenengoz erabiltzeko baimena ematen da. (Bada urte-bete funtzionatzen ari dela!!!)
- Lehenengo alean esaten gureen bezela, oraingoan Hotel Francorri tokatu zaio, eta Pleno honetan onartua izan da horren erabaketa, edo botatzea. Hotel bat gutxiago, eta esaten gureen bezela, norbaitek bere ilobei erakutsi nahi badio argazki zarran bat, atera ezazue lehenbailehen.


Apirilaren 27an:

- 1986ko Udal langileen komenioa onartzen da. Baita lan egutegia ere.
- Sokoako merkatalgunea eraikitzeko aurrekontua onartzeko proposamena mahai gainean gelditzen da, aurrekontu gehiago eskuratzeko.
- Bordari, eta Satarka, idatz lehiaketan oinarriak onartzen dira. Oinarri hauek aldikariaren beste leku batean agertzen dira oso-osorik.
- EKB-k "Euskal Kulturaren Batzarrea", eta Euskara azpibatzordeak, Irufean ospatu zuten euskararen aldeko manifestaldia bueltatzeko aurkeztutako mozioa ez zen onartua izan.
- Euskal presoak, espetxetan euskara erabili ahal izan dezaten alde aurkeztutako mozioan, bi puntu onartu ziren; eta bat ez, alegia, Preso politiko horiek, helburu hori lortzeko hartu duten erabakiak apoiatzea.
- Abenduaren 6a, Espainiol Konstituzioaren eguna jaia dela eta, jai hori ez onartzeko proposamena ez da onartzen.
- Aseginolazaren Astilleroak birreskuratzeko jessioak azkartzea onartzen da.
- Club Nautico dela eta, bileraren bat izan ote den galdetzen da. Alkate Juanak horren berri ematen du.

BATETIK ETA BESTETIK, BERRIAK

Foru Kaleko Terras-eder deituriko orubean, askaldegia (merendero) bat jarzeko aurreproiektua aurkeztu da.

- Amuteko Auzo-elkartekoak, auzoan futbol zelaia aurrera eramateko proiektuari buruz hitz egitera azaltzen dira.
- Herri Bertangoek, interes gabea mailuegia lortzeko, eta bertako urbanizazioa aurrera eraman ahal izateko, Eusko Jaurlaritzari eskaera egiteko eskatzen dio Udalari.
- Mendelu auzokoak, Betherram eta Berraruntz egin den bidea garbitu eta bukatzeko eskatzen dute.



- Carlos V. Hotela zegoen orubean etxe bizitzak egin ahal izateko. Egitasmo Orokoraren (Plan General) aldiketaren aurreproiektua aurkeztu da.

- Villa Marilaxan eta Alkizaenean etxeak egiteko baimenak eskatu dira.

- Butron Pasealekuan paretari erori zaigula denok dakigu, orain asuntxo, hori lehenbailehen konpontzea da. Datorren negua baino lehen neurriak hartu beharko dira, eta, paperak ondo begiratu ondoren, hori Udalarri dagokiola dirudi.

- Guadalupeko Fuertea, eta Torralbako lurrak erosi nahi ditu Udalak, eta horretarako, behar den lekuan jessioak erdiko dituzte.

- Kultura arloan, Musika bandaokoa Udalara hurbildu dira, Udal Musika eskola hobeto moldatzeko plan bat aurkeztuz. Bestalde, Gipuzkoako bi banda etorriko dira kontzertu bana ematera.

- Diputazioarekin batera, Hondarribiko Udalak arte eta eskulangintzako ikastaroak antolatuko ditu aurtien ere. Laister aterako dira oinarriak.

- Barcelonako Nafartarren etxeokak eskutitz bat bialdu dute Udalara, Alberto Lasari eskerrak emanaz, hara bialdu-tako txistu partituratagatik. Ederki, Alberto, gure txistu hotsa entzuteko egiten duxun lanagatik!

- Ikastolako umeak, toki jakin batzutan muralak margotzeko baimena eskatu dute. Toki horien jabeak baimena eskatuko dio Udalari, eta gainera diru laguntza eskainiko die ikastolakoak.

- Antolatu nahi den Kultura edo Arte Kontseiluari buruz Eskifaik aurkeztutako txostena argitzera etorri da Jabier Busto. Gaia oso interesgarria dela dirudi, eta laguntza eskatzen du aurrera eraman ahal izateko. Honekin ados dagoena eta interesdunak jo beza bai Jabier berarengana edo Kultura Batzordeko idazkari den Mari Lis Goñirengana.

- Udaleku irekiak direla eta, hamar begirale behar dira. Begirale horiek hartzeko oinarriak egiten ari da Udala. Momentuan behintzat, eta ezinbesteko oinarri bezela, Hondarribian jai edo bizi, eta euskaldunak izan beharko dute.

- Datorren Uztailen edo Abuztuaz, gazta feria bat egin nahi da Hondarribian. Gazta onak dastatzeko aukera izango dugu.

- Euskara Azpibatzordeak, datorren hi-

lean, Gipuzkoako D eta B ereduko eskola guztiek in jaldi bat montatu nahiluke Hondarribian. Oraindik zintzilik badago ere, asmoak hortxe daude.

GOBERNU BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIAK

Apirilaren 7an egindako bileran:

- Kale Nagusiko 7-9 zenbakitan, jaltetxe bat irekitzeko baimena eman zaio Sebastian Arance Rodriguez Jaunari, ireki aurretik zenbait oinarri bete beharko duelarik.
- SOKOA Merkataldegian ("noiz arte Centro Comercial Sokoa?") supermerkatoa irekitzeko baimena Maria Dolores Salaberria Lapitz andrea, eta Eugenio Arnedo Miguel Jaurri oinarri berak betetzeko agintearekin.
- Herriko errolda berritzeko zortzi zentsu-ajenteen izendapena. Jarraila oinarri arabera hauek izan ziren izendatuak: Gema Sagazazu Gonzalez, M.^a Antonia Zubillaga Siguero, Jaime Anduaga Matuz, Juan Pedro Irigarai Bergara, Sebastian Carrillo Salaberria, Anselma Sagazazu Altuna, Juan M.^a Aldaya Aldaya, Gemma Etxebeste Sotien, eta ordezko bezela, Isabel Berot Sagazazu eta Arantza Mavilla Arrua barrena.

Apirilaren 21ean egindakoan:

- Hondarribian, Gipuzkoako bi musika banda kontzertu bana emateko, 90.000 pezaketako dirulaguntza ematea onartu da.
- Amuten, motorrak konpontzeko tailer-jartzea ez da onartzen, baldin eta eskaleak, 40db baino gutxiagoko zarata edo soinua bermatzen ez duen bitartean.
- "Torrea" etxadiak igerileku bat eraikitzeko baimena ematen da. Bertatik joan behar duen errepidea egiten hasten denean, kendu beharko dutelarik.
- Butron Pasealekuan, paretari indartzeko egiteko baimenak izan behar diren aurreproiektua egiteko agintzen da.
- Saindua baserria, gaztetxerako erabiltzeko proiektorearen onarpena.
- Caritas-ek, urtero jartzen duen tonbolaren baimena ematen da.